



Enpresa txiki eta ertainek abantailarik bai ote?

Mari Jose Aranguren*

Euskal Autonomi Elkarteko manufakturazko industrian 1990. urtean genituen enpresetatik % 97 txikiak ziren, eta enpresa hauei zegokien enplegua manufakturazko industriari zegokion enpleguaren % 48 zen. Enpresa txiki eta ertainak hartuz gero, bi talde hauei enpresen % 99 eta enpleguaren % 80 zegozkien.

Enpresa txiki eta ertainen kopuruan eta enpresa hauei dagokien enpleguan ematen den eboluzioari begiratzen badiogu, EAEko manufakturazko industrian enpresa

txiki eta ertainen pisua 80ko hamarkadaren bigarren zatian erruz igo zela esan behar da. Urte hauetan sortutako enpresa txiki eta ertainak izan dira EAEko manufakturazko industriako


enplegu sortzailerik garrantzitsuenak. Gainera, hau ez da EAEn bakarrik gertatzen; Espainiako eta atzerriko herrialdeetako txosten eta ikerketetara jotzen badugu garbi ikus daiteke Espainian, Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Frantzia eta abarretan ere berdin gertatu zela. Atzerriko herrialdeekiko ezaugarri bereziren bat aipatzekotan, gertakizun honek Espainian eta EAEn izan duen atzerapena aipatu beharko litzateke, bi esparru hauetan enpresa txiki eta ertainen pisuaren igoera hau atzerriko herrialdeetan baino berandua go eman baita.

Enpresa txiki eta ertainek funtzio sozial garrantzitsu bat bete badute ere, hau da, enplegu sortzaile edo iturburu garrantzitsuak izan badira ere, Ekonomia Industrialeko ikerketa askotan herrialde bateko industrian enpresa txikiek pisu erlatibo handiago izatea he-



rrialde horren lehiagarritasunera-ko oztopo edo puntu ahultzat jo izan da. Iritzi horren alde ondorengo arrazoiak aipatu izan dira:

- Ekonomi eskalak garrantzitsuak diren sektoreetan enpresa txikiak desabantailan aurkitzen dira. Hau da, sektore batean ekoizkin unitate gehiago ekoizten dutenez, merkeago produzitu ahal izango dute eta sektore horretan enpresa txikiak zailtasunak izango lituzkete handiekin kostuetan konpetitzeko.



80ko hamarkadaren bigarren zatian sortutako enpresa txiki eta ertainak izan dira EAEko manufakturazko industriako enplegu sortzailearik garrantzitsuenak.

Ekonomi eskalak, egiten diren inbertsioen zati edo kostu finkoa produkzio-unitate gehiagoren artean banatzeagatik ematen dira. Ondorioz, enpresa batean ekonomi eskalek iturburu desberdinak izan ditzake-

Enpresa txikiak zailtasunak dituzte teknologi mailan inbertsio finko altuak eskatzen dituzten sektoreetan konpetitzeko.



te eta ez dira nahi eta nahiez produkzio-prozesuko kostu finkoak banatzeagatik sortzen, baizik eta teknologian, marketing-eko alor desberdinetan eta abarretan sortzen diren kostu finkoen banaketagatik ere eman daitezke. Are gehiago, badirudi azken urteetan aipaturiko azken bi arrazoi hauengatik maizago ematen direla.

- Enpresa txikiak normalean teknologi maila apalagoa izaten dute, neurri handi batean ekonomi eskalez hitz egitean aipatu dugun arrazoi batengatik, teknologi inbertsioetan ere ekonomi eskalak oso garrantzitsuak izan daitezkeelako alegia (adib. I+Gko kostuak normalean kostu finkoak izaten dira) eta, orduan eta gehiago produzitu errazago izango litzateke eginiko inbertsioari errentagarritasuna ateratzea. Horregatik, enpresa handiek gehiago produzitzen dutenez, enpresa txikiak baino errazta-

sun handiagoa lukete beraien l+Gko inbertsioak errentagarri gerta dakizkien. Ondorioz, enpresa txikiek zailtasunak dituzte teknologi mailan inbertsio finko altuak eskatzen dituzten sektoreetan konpetitzeko.

- Arrazoi berdinegatik –eta oraingoan marketing-eko kostuei dagokionez, hots, publizitate kostuei eta abarri dagokionez–, enpresa handiek marketing-alorra landuago izaten dute normalean. Hau, teknologiarri buruz hitz egitean aipatu dugun bezala, marketing-arloan eman daitezkeen ekonomi eskalen ondorioz gertatuko litzateke, hau da, enpresa handiek unitate gehiago produzitzeagatik marketing-arloko kostu finkoak ere ekoizkin gehiagoren artean bana ditzakete. Ondorioz, kanpo merkataritzara oso irekiak dauden eta marketing-eko kostu finko altuak eskatzen dituzten sektoreetan nekez konpeti dezakete enpresa txikiek.

Dena den, enpresa txiki eta ertainek lehiakortasunerako zenbait oztopo badute ere, ezin genezake esan enpresa txikiak izatea herrialde baten lehiakortasunaren kalterako denik aurretik herrialde horretan zer sektore-mota dauden ikusi arte behintzat. Ondorengo lerroetan enpresa txikiek izan ditzaketen abantaila batzuez arituko gara:

- Oso aldakorrek diren sektoreetan, hots, haien eskariaren maila eta ezaugarriak maiz eta erraztasun handiz aldatzen diren sektoreetan, enpresa txikiek abantailak izan ditzakete. Enpresa handiek, haien egituragatik, kostu finko altuagoak izaten dituzte. Hau da, enpresa handietan kapital-kostuek lan-kostuek baino pisu handiagoa dute, eta beraz enpresa handien malgutasuna txikiagoa da. Ondorioz, enpresa txikiek



Kanpo merkataritzara oso irekiak dauden eta marketingo kostu finko altuak eskatzen dituzten sektoreetan nekez konpeti dezakete enpresa txikiek.

enpresa handiek baino kostu-aldaketa txikiagoz eskariaren aldaketetara egokitzeko erraztasuna dute eta honetan datza Stigler autoreak erabiltzen duen malgutasun-konzeptua.

- Bestalde, enpresa txikietan erabakiak azkarrago eta erra-

zago hartzen dira, batez ere haien hierarkian maila gutxiago egoten delako. Ondorioz, informazioa goiko mailatik behekoa eta behekotik goikora azkarrago hedatzeko bideak dituzte enpresa txikiek. Hau ere malgutasunaren beste kon-



tzeptu bat dugu, hain zuzen ere Harrigan autoreak erabiltzen duen malgutasun-konzeptua.

Azken urteotan eskariak aldaketa handiak izan ditu, batetik modaren eraginagatik eta, bestetik, gero eta internazionalizatuagoak gaudelako. Honek ere, lehiakorra izateko, malgutasuna eskatzen du.

Azkenik esan beharra dago ekonomi eskalengatik desabantailak dituzten sektoreetan ere enpresa txikiak beste bitarteko batzuek balia daitezkeela lehiakorrak izateko. Bitarteko hauek ondorengoak izan daitezke:

- Teknologi malguak: 80. hamarkadan teknologi malguk –hau da, ekoizkin desberdinak produzitzeko egokitze erraza duten teknologiek–, aurrerapen handia izan dute eta teknologi malgu hauek produktu-mailan ematen diren ekonomi eskalen garrantzia jaisten dute. Beraz, enpresa txikiak teknologi malguetan inbertitu eta inbertsio honen errentagarritasuna lortzeko makina horietan ekoizkin desberdinak produzitzeaz balia daitezke eta ekonomi eskalak produktu-maila lortu beharrean enpresa-mailan lortzeaz.
- Enpresen arteko kooperazioa: enpresa txikiek zenbait arlotan elkarlanera jo dezakete, hau da, merkatuko sareak, zenbait teknologi berezi eta abar elkarbana ditzakete. Horrela zenbait arlotan eman daitezkeen kostu finakoak enpresa desberdinen ekoizkin unitateen artean banatuz, erraztasun handiagoa izango lukete beren inbertsioak errentagarriak egiterakoan.
- Desberdintzeko estrategia: enpresa txikiek, ekonomi eskalak garrantzitsuak diren sektoreetan lehiatzeko zailtasunak badiutze ere, beste estrategian,

desberdintzeko estrategian alegia, egin dezakete lehia. Alde batetik, eskariaren ezaugarrietan maiz ematen diren aldaketaz (moda eta abarrean eraginez) balia daitezke, ezaugarri horiek eskaintzean lehenak izaten saiatzeko. Bestalde, bere ekoizkinak merkatu zati batera zuzenduz bereizi daitezke, hots, bezeroarenganako gertutasunean oinarrituz eta ezaugarri hori baloratzen duten bezeroez baliatuz, horiek kokatuak

rrantzitsuak izatea ere), hau da, eskari-mailak edo ezaugarriek gora-behera handiak izan ditzakete (adib. momentu batean larruzko zapaten eskaria oso altua izan daiteke eta handik denbora batera modaren eraginez, edo kirolak hartzen duen garrantziagatik, jendeak kirola egiteko zapatilak erostea nahiago izan dezake). Era honetako sektoreek pisu handia duten herrialdeetan oso garrantzitsua izango da eskaintza/eskarira egokitzeko



dauden inguruko merkatura zuzendu daitezke.

Beraz, ezin dezakegu esan, besterik gabe, enpresa txiki eta ertainak izatea herrialde baten lehia-kortasunerako kaltegarri denik. Sektore-mailara gutxienez jaitsi beharko litzateke azterketa, hori esan ahal izateko. Sektore batzuk kapitalean oso intentsiboak dira eta hauetan ekonomi eskalak oso garrantzitsuak izaten dira. Sektore horietan enpresa txikiek kostuetan lehiatzeko duten zailtasunari aurre egiteko bidea aurkitzen duten ala ez ikusi beharko litzateke. Beste sektore batzuk, aldiz, eskari oso aldakorra izan dezakete (gerta daiteke hauetako batzuetan ekonomi eskalak ga-

Oso aldakorrek diren sektoreetan, hots, haien eskariaren maila eta ezaugarriak maiz eta erraztasun handiz aldatzen diren sektoreetan, enpresa txikiek abantailak izan ditzakete.

ahalmen handia duten enpresak izatea, eta kasu hauetan enpresa txikiak, bere malgutasunagatik, egokiak izan daitezke.



* CAF-Elhuyar sarietara aurkeztutako artikulua. ESTEko irakaslea.